



AKTA

Udalbatzarraren ezohiko bilkura

EGUNA: 2015eko maiatzaren 21a, osteguna

TOKIA: Udalbatzarraren aretoa, udaletxean

DEIALDIA: Lehen

HASTEKO ORDUA: 20:05 **BUKATZEKO ORDUA:** 20:12

BERTARATUAK:

Alkatea

Beñat Solaberrieta Albizu

Zinegotziak

Jon Redondo Lertxundi, Angel del Hoyo Bravo, Noemi Ostolaza Arkauz, Lourdes Salsamendi Goñi, Eugenio Cotado Iturain, Elena Etxeberria Sedano, Bixente Lasa Karrikaburu, Amaia Dorronsoro Portularrume, Ekiñe Saizar Larrañaga, Miriam Uranga Egurza eta Jose Angel Iparragirre Alberdi.

Idazkari-kontu-hartzailea

Jon Carrera Jauregi

Jon Agirresarobe Lopetegi zinegotziak (Bildu) adierazi du ezin zuela etorri, kanpoan dagoelako, eta beraz, ez du bilkuran parte hartu.

Gai-zerrenda

- 1.- Irakurri eta onartzea, egoki bada, udalbatzarrak 2014ko abenduaren 23an eta 2015eko martxoaren 31n egindako ezohiko bilkuren eta 2015eko otsailaren 26an eta apirilaren 30ean egindako ohiko bilkuren akten zirriborroak.



- 2.- Behin betikoz onartzea, egoki bada, Udalaren 2014ko aurrekontuaren Kontu Nagusia.
- 3.- Behin betiko onarpena ematea, egoki bada, Santiago Etxeberria Irastortzak eta Carpintería Botaleku SA entitate merkantilak formulatzen duten hitzarmenari. Bai Santiago Etxeberria Irastortza eta bai Carpintería Botaleku SA entitate merkantila Orioko 19. arearen —Botaleku— exekuzio-unitatearen barruko lurren jabeak dira eta hitzarmena eremu hori kontzertazio sistemaren bidez gestionatzeko formulatu dute.
- 4.- Eskariak eta galderak.

Esan-eginak

1.- IRAKURRI ETA ONARTZEA, EGOKI BADA, UDALBATZARRAK 2014KO ABENDUAREN 23AN ETA 2015EKO MARTXOAREN 31N EGINDAKO EZOHICO BILKUREN ETA 2015EKO OTSAILAREN 26AN ETA APIRILAREN 30EAN EGINDAKO OHIKO BILKUREN AKTEN ZIRRIBORROAK.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, inork inolako oharrik egiten ez duenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMABI BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

ONARTZEA udalbatzarrak 2014ko abenduaren 23an eta 2015eko martxoaren 31n egindako ezohiko bilkuren eta 2015eko otsailaren 26an eta apirilaren 30ean egindako ohiko bilkuren aktak.

2.- BEHIN BETIKOZ ONARTZEA, EGOKI BADA, UDALAREN 2014KO AURREKONTUAREN KONTU NAGUSIA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Indarrean dagoen araudian ezarritakoa betez, jendaurrean jarri dira, batetik, 2014ko ekitaldiko urteko kontuak eta kontabilitateko egoera-orriak, eta, bestetik, 2014ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioa, bere agiriekin, eta Kontuen Batzorde Bereziaren txostena; agiri horiek 15 laneguneko epean egon behar zuten jendaurrean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita, herritarrei aukera emateko aztertzeko eta, epe horren barruan, beren eragozpen edo oharra idatziz aurkezteko.



Iragarkia 2015eko apirilaren 30eko GAO (80. zenbakia) argitaratu zen eta, beraz, jendaurreko epea, eragozpenak edo oharrik aurkezteko, 2015eko maiatzaren 2an hasi zen eta maiatzaren 19an bukatu.

Epe horren barruan ez zen inolako eragozpen edo oharrik aurkeztu.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [Aldeko botoak: Solaberrieta (Bildu), Saizar (Bildu), Lasa (Bildu), Dorronsoro (Bildu), Uranga (Orain) eta Iparragirre (Orain), guztira **SEI ALDEKO BOTO**; abstentzioak: Redondo (EAJ), Del Hoyo (EAJ), Ostolaza (EAJ), Salsamendi (EAJ), Cotado (EAJ) eta Etxeberria (EAJ), guztira **SEI ABSTENTZIO**]:

ONARTZEA Udalaren 2014ko aurrekontuaren Kontu Nagusia, aurrekontu propioak osatzen duena.

3.- BEHIN BETIKO ONARPENA EMATEA, EGOKI BADA, SANTIAGO ETXEBERRIA IRASTORTZAK ETA CARPINTERÍA BOTALEKU SA ENTITATE MERKANTILAK FORMULATZEN DUTEN HITZARMENARI. BAI SANTIAGO ETXEBERRIA IRASTORTZA ETA BAI CARPINTERÍA BOTALEKU SA ENTITATE MERKANTILA ORIOKO 19. AREAREN —BOTALEKU— EXEKUZIO-UNITATEAREN BARRUKO LURREN JABEAK DIRA ETA HITZARMENA EREMU HORI KONTZERTAZIO SISTEMAREN BIDEZ GESTIONATZEKO FORMULATU DUTE.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarrak, 2015eko otsailaren 26ko ohiko bilkuran, erabaki zuen, batetik, lehen onarpena ematea kontzertazio-hitzarmen horri eta, bestetik, hitzarmena jendaurrean jartzea 20 laneguneko epeaz, aukera emateko interesatuei aztertzeke eta alegazioak aurkezteke.

Erabakia jendaurrean jartzearen iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 2015eko apirilaren 13an (67. zenbakian) eta, beraz, jendaurreko epea 2015eko apirilaren 14an hasi zen eta 2015eko maiatzaren 7an bukatu.

Epe horren barruan ez zen inolako alegaziorik aurkeztu.

Ikusita Euskadiko Lurzorua eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 160.3 artikulua xedatzen duena, zazpigarren xedapen gehigarriaren 8. atalarekin erlazionatuta.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, jendaurreko informazioaren emaitza ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMABI BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

1.- Behin betiko **ONARPENA EMATEA** Santiago Etxeberria Irastortzak eta Carpintería Botaleku SA entitate merkantilak formulatzen duten hitzarmenari. Bai Santiago



Etxeberria Irastortza eta bai Carpintería Botaleku SA entitate merkantila Orioko 19. arearen —Botaleku— exekuzio-unitatearen barruko lurren jabeak dira eta hitzarmena eremu hori kontzertazio sistemaren bidez gestionatzeko formulatu dute. Hitzarmenaren edukiari honako zehaztapenak egiten zaizkio:

Kontzertazio-hitzarmenaren seigarren estipulazioan, '*ascienden a 700.254,00€*' jartzen duen tokian honako hau jarri behar du: '*ascienden a 777.542,10€*'; bestalde, '*obras de urbanización: 515.254,00€*' jartzen duen tokian honako hau jarri behar du: '*obras de urbanización: 592.542,10€*'.

Kontzertazio-hitzarmenaren zazpigarren estipulazioan, abalaren zenbatekoa '*49.017,78€*' izango dela jartzen duen tokian honako hau dela jarri behar du: '*54.427,95€*'.

2.- **ARGITARATZEA** behin betiko onarpenaren iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, aurkez litezkeen lege-errekurtsoak azalduz, jendeak jakin dezan eta horren arabera joka dezan.

4.- ESKARIAK ETA GALDERAK.

Jon Redondo zinegotziak (EAJ) hartzen du hitza eta alkateari informazioa eskatzen dio udal funtzionario bati ireki zaion diziplinako espedienteari buruz. Adierazten du, itxuraz, bere talde politikoa izan dela horren berri jaso ez duen bakarra eta alkateari galdetzen dio ea zergatik ez den gai horri buruzko informaziorik eman Pertsonaleko batzorde informatzailean. Alkateak erantzuten dio, esanez legealdia bukatzen ari dela eta, bukatu baino lehen, EAJren udal taldeak espediente horren informazioa jasoko duela.

Bestalde, Jon Redondo zinegotziak galdetzen du ea noiz izango den legealdi honetako azken udalbatzarra. Udal idazkariak erantzuten dio, indarrean dagoen araudiaren arabera, legealdiko azken udalbatzarra ekainaren 10ean egingo dela eta gai bakarrekoa izango dela: gaurko egunez egindako udalbatzarraren akta onartzea.

Ez zen eskari eta galdera gehiagorik izan.

Horrenbestez, udalbatzarrerara bertaratutako pertsonetako inork hitza hartu ez duenez, alkate-presidenteak bilkurari amaiera ematen dio eta, erabakitakoa jasota gera dadin, nik, idazkaria naizenez, akta hau egiten dut alkatearen ontzat emanarekin.

ALKATE-PRESIDENTEA,

IDAZKARIA,